En la Casa Consistorial del M. I. Ayuntamiento de Auritz/Burguete siendo las 16,30 horas del día 11 de septiembre de 2023, se reunió el Ayuntamiento al objeto de celebrar sesión extraordinaria con la asistencia de los Sr./a. Concejal/a D. Juan Miguel Juandeaburre Ainciburu y Dª. Miren Oyarbide Lapazarán, bajo la presidencia del alcalde D. José Irigaray Gil, actuando como Secretaria de la Corporación Doña Marisol Ezcurra Irure.

**Único.- APROBACIÓN PROYECTOS PLAN DE INFRAESTRUCTURAS LOCALES Y APROBACIÓN PLANES FINANCIEROS.**

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray informando de que habiéndose aprobado por parte del Departamento de Administración Local la inclusión y concesión de ayudas para renovar la pavimentación de estas dos calles procede aprobar los proyectos y sus respectivos planes financieros que hay que remitirlos al Departamento antes del 25 de septiembre, razón que exige la convocatoria de esta sesión. Comenta que cuando se tuvo conocimiento de la inclusión de las obras en el programa del Plan de Infraestructuras Locales (PIL) se puso en contacto con el ingeniero D. Juan Guallart para que redactase los proyectos. Explica someramente los cambios o novedades más significativas. Así en Kanaleburua se va a modificar el perfil transversal de la calzada eliminándose el caz central y elevando en esa zona el pavimento de manera que las aguas viertan a los lados donde se prevé que haya una serie de sumideros para la recogida de pluviales. La motivación del cambio es debida a que ese tipo de vías en zonas con condiciones climáticas como las de aquí no funciona pues es imposible retirar la nieve con los tractores quitanieves, favoreciendo la formación de placas de hielo.

Respecto a la calle Roncesvalles Fase I se contempla dejar algún tubo metido para el paso de alumbrado público y mejora de recogida de aguas pluviales cerca de casa Urrutia. En relación a la Fase II se contempla una canalización que suministre energía a la farola colocada en el Lavadero de Abajo y que en la actualidad carece de corriente eléctrica. Esta luminaria, en principio no estaba prevista su colocación por las dificultades que mostraba, pero teniendo en cuenta que los propietarios de Zurginenea han renunciado a la colocación de una en su casa que ya estaba presupuestada, que en ese entronque de calles quedaba un amplio punto oscuro y que la pavimentación se efectuará en 2025, se ha acordado con los ingenieros de ambos proyectos contemplar la instalación.

A continuación la Secretaria procede a explicar los planes financieros de cada uno de los proyectos, acordando la corporación lo siguiente:

**1.1- Proyecto de Renovación de la Pavimentación en la Calle Kanaleburua de Auritz/Burguete.**

Estudiado el proyecto y su correspondiente plan financiero, se acuerda por unanimidad:

1º.- Aprobar el proyecto de Renovación de la Pavimentación en la Calle Kanaleburua de Auritz/Burguete, redactado por Ingeniería Guallart

2º.- Aprobar el siguiente plan financiero:

***INVERSIÓN***

*Importe de la inversión IVA incluido y afecciones en su caso*
*102.013,10 €*

*Importe honorarios IVA incluido* *8.161,04€*

*Importe total de la inversión IVA incluido*
*110.174,14 €*

***FINANCIACIÓN***

*Aportación PIL (porcentaje aportación x importe auxiliable previsto IVA*

*excluido)*
*68.289,76(75%)€*

*Aportación Libre Determinación PIL* *19.087,00€*

*Remanente de Tesorería* *22.797,75 €*

*Total financiación €* *110.174,14*
*€*

*Que en el supuesto de que el importe auxiliable establecido por el Servicio de Infraestructuras Locales de la Dirección General de Administración Local y Despoblación resulte inferior al importe previsto por la entidad local y, por tanto, la cantidad a financiar por ésta aumente, la financiación de dicho gasto se realizará con cargo a:*

☒ *Remanente de Tesorería*

3º.- Presentar en Administración Local el acuerdo adoptado y resto de documentación requerida en LEY FORAL 8/2022, de 22 de marzo, reguladora del Plan de Inversiones Locales.

**1.2- Proyecto de Renovación de la Pavimentación de la Calle Roncesvalles, de Auritz/Burguete (Fase I, Tramo entre Zubiarte y Kuatropea)**

Estudiado el proyecto y su correspondiente plan financiero, se acuerda por unanimidad:

1º.- Aprobar el proyecto de Renovación de la Pavimentación de la Calle Roncesvalles, de Auritz/Burguete (Fase I, Tramo entre Zubiarte y Kuatropea), redactado por Ingeniería Guallart

2º.- Aprobar el siguiente plan financiero:

*INVERSIÓN*

*Importe de la inversión IVA incluido y afecciones en su caso 75.319,95 €*

*Importe honorarios IVA incluido 6.025,60 €*

*Importe total de la inversión IVA incluido 81.345,55 €*

*FINANCIACIÓN*

*Aportación PIL (porcentaje aportación x importe auxiliable previsto IVA excluido) 50.420,80(75%)€*

*Operaciones de crédito a largo plazo 30.924,75 €*

*Total financiación € 81.345,55 €*

*Que en el supuesto de que el importe auxiliable establecido por el Servicio de Infraestructuras Locales de la Dirección General de Administración Local y Despoblación resulte inferior al importe previsto por la entidad local y, por tanto, la cantidad a financiar por ésta aumente, la financiación de dicho gasto se realizará con cargo a:*

*☒ Operaciones de crédito a largo plazo*

3º.- Presentar en Administración Local el acuerdo adoptado y resto de documentación requerida en LEY FORAL 8/2022, de 22 de marzo, reguladora del Plan de Inversiones Locales.

**1.3- Proyecto de Renovación de la Pavimentación de la Calle Roncesvalles, de Auritz/Burguete (Fase II, Tramo entre San Nicolás y Zubiarte)**

Estudiado el proyecto y su correspondiente plan financiero, se acuerda por unanimidad:

1º.- Aprobar el proyecto de Renovación de la Pavimentación de la Calle Roncesvalles, de Auritz/Burguete (Fase II, Tramo entre San Nicolás y Zubiarte), redactado por Ingeniería Guallart

2º.- Aprobar el siguiente plan financiero:

*INVERSIÓN*

*Importe de la inversión IVA incluido y afecciones en su caso 117.014,64 €*

*Importe honorarios IVA incluido 9.361,18 €*

*Importe total de la inversión IVA incluido 126.375,82 €*

*FINANCIACIÓN*

*Aportación PIL (porcentaje aportación x importe auxiliable previsto IVA*

*excluido) 78.332,12(75%)€*

*Aportación Libre Determinación PIL 31. 812,00 €*

*Operaciones de crédito a largo plazo 46.520,12 €*

*Total financiación € 126.375,82 €*

*Que en el supuesto de que el importe auxiliable establecido por el Servicio de Infraestructuras Locales de la Dirección General de Administración Local y Despoblación resulte inferior al importe previsto por la entidad local y, por tanto, la cantidad a financiar por ésta aumente, la financiación de dicho gasto se realizará con cargo a:*

*☒ Operaciones de crédito a largo plazo*

3º.- Presentar en Administración Local el acuerdo adoptado y resto de documentación requerida en LEY FORAL 8/2022, de 22 de marzo, reguladora del Plan de Inversiones Locales.

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las 17:00 h. del mismo día, se levanta la sesión, de lo que doy fe.

Aurizko Udaletxean, 2023ko irailaren 11ko 16:30ean, Udala bildu zen bilkura berezia egiteko. Bertaratuak: Juan Miguel Juandeaburre Ainciburu eta Miren

Oyarbide Lapazaran, bilkuraburu alkatea, Jose Irigaray Gil izan zen eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure.

**Bakarra.- TOKIKO AZPIEGITURA PLANEAN PROIEKTUA AURKEZTEA ONARTZEA ETA FINANTZA-PLANA ONARTZEA**

Irigaray alkate jaunak hartu du hitza, eta jakinarazi du Toki Administrazioko Departamentuak bi kaleren zoladura berritzeko laguntzak ematea onartu duenez, irailaren 25a baino lehen Departamentura bidali behar diren proiektuak eta finantza-planak onartu behar direla. Hori dela eta, bilkura honetarako deia egin da. Aipatu du jakin zuenean obrak horiek Tokiko Azpiegitura Planean sartu zirela, Juan Guallart ingeniariarekin hitz egin zuela proiektuak idazteko. Aldaketa edo berriketa nabarmenenak azaldu ditu. Horrela, Kanaleburuan, galtzadaren zeharkako profila aldatuko da, erdiko ubidea kenduko da eta zoladura altxatuko da, urek alboetara isuri dezaten. Bertan, euri-urak biltzeko hustubide batzuk jartzea aurreikusten da. Bide mota horiek, hemengo baldintza klimatikoetan, ez dute funtzionatzen, elurra kentzeko traktoreekin elurra kentzea ezinezkoa baita, eta horrek izotz-plakak sortzea errazten du.

Orreaga kaleari dagokionez (I. fasea), aurreikusten da hodiren bat sartzea argiteria publikorako eta euri-uren bilketa hobetzea Urrutia etxetik gertu. II. Faseari dagokionez, Beheko Garbitegian dagoen eta gaur egun korronte elektrikorik ez duen farola energiaz hornituko duen kanalizazio bat aurreikusten da. Hasiera batean, ez zegoen aurreikusita argi hori jartzea, hainbat zailtasunengatik, baina, kontuan hartuta Zurgineneako jabeek uko egin diotela jada aurrekontuan jasota zegoen farola bat jartzeari, kaleen lotura horretan puntu ilun zabal bat geratzen dela eta zoladura 2025ean egingo dela, bi proiektuetako ingeniariekin adostu da farola hori jartzea.

Ondoren, idazkariak proiektu bakoitzaren finantza-plana azaldu du eta udalbatzak honakoa erabaki du:

**1.1- Aurizko Kanaleburua karrikaren zoladura berritzeko proiektua**

Proiektua eta bere finantza-plana aztertuta, aho batez erabaki da:

1º.- Aurizko Kanaleburua karrikaren zoladura berritzeko proiektua, Guallart Ingeniaritzak egina, onartzea.

2.- Hurrengo finantza-plana onartzea:

***INBERTSIOA***

*Inbertsioaren zenbatekoa (BEZ barne) eta, hala badagokio, eraginak*
*102.013,10 €.*

*Ordainsariak BEZ barne* *8.161,04€*

*Inbertsioaren zenbateko osoa BEZ barne*
*110.174,14 €.*

***FINANTZABIDEA***

*TAPren ekarpena (ekarpenaren portzentajea x aurreikusitako zenbateko lagungarria BEZ kanpo)*
*68.289,76(75%)€*

*TAP Determinazio Libreko ekarpena* *19.087,00€*

*Diruzaintzaren soberakina*
*22.797,75 €.*

*Finantzamendua, guztira:*
*110.174,14 €.*

*Toki Administrazioko eta Despopulazioko Zuzendaritza Nagusiko Toki Azpiegituren Zerbitzuak ezarritako diruz lagun daitekeen zenbatekoa tokiko erakundeak aurreikusitako zenbatekoa baino txikiagoa bada, eta, beraz, erakunde horrek finantzatu beharreko zenbatekoa handitzen bada, gastu horren finantzaketa honako hauen kargura egingo da:*

*☒ Diruzaintzaren soberakina*

3.- Hartutako erabakia eta Tokiko Azpiegitura Plana arautzen duen martxoaren 22ko 8/2022 FORU LEGEAn eskatutako dokumentazioa Tokiko Administrazioaren Departamentuan aurkeztea.

**1.2- Aurizko Orreaga karrikako zoladura berritzeko proiektua (I Fasea, Zubiarte eta Kuatropea karriken artean)**

Proiektua eta bere finantza-plana aztertuta, aho batez erabaki da:

1º.- Aurizko Orreaga karrikako zoladura berritzeko proiektua (I Fasea, Zubiarte eta Kuatropea karriken artean), Guallart Ingeniaritzak idatzia onartzea.

2.- Hurrengo finantza-plana onartzea:

*INBERTSIOA*

*Inbertsioaren zenbatekoa (BEZ barne) eta, hala badagokio, eraginak*
*75.319,95 €.*

*Ordainsariak BEZ barne* *6.025,60 €.*

*Inbertsioaren zenbateko osoa BEZ barne*
*81.345,55 €.*

*FINANTZABIDEA*

*TAPren ekarpena (ekarpenaren portzentajea x aurreikusitako zenbateko lagungarria BEZ kanpo)*

*50.420,80(75%) €Kreditu operazioak epe luzera*
*30.924,75 €.*

*Finantzamendua, guztira:*
*81.345,55 €.*

*Toki Administrazioko eta Despopulazioko Zuzendaritza Nagusiko Toki Azpiegituren Zerbitzuak ezarritako diruz lagun daitekeen zenbatekoa tokiko erakundeak aurreikusitako zenbatekoa baino txikiagoa bada, eta, beraz, erakunde horrek finantzatu beharreko zenbatekoa handitzen bada, gastu horren finantzaketa honako hauen kargura egingo da:*

*☒ Kreditu operazioak epe luzera*

3.- Hartutako erabakia eta Tokiko Azpiegitura Plana arautzen duen martxoaren 22ko 8/2022 FORU LEGEAn eskatutako dokumentazioa Tokiko Administrazioaren Departamentuan aurkeztea.

**1.3- Aurizko Orreaga karrikako zoladura berritzeko proiektua (II Fasea, San Nikolas eta Zubiarte karriken artean)**

Proiektua eta bere finantza-plana aztertuta, aho batez erabaki da:

1º.- Aurizko Orreaga karrikako zoladura berritzeko proiektua (II Fasea, San Nikolas eta Zubiarte karriken artean), Guallart Ingeniaritzak idatzia onartzea.

2.- Hurrengo finantza-plana onartzea:

*INBERTSIOA*

*Inbertsioaren zenbatekoa (BEZ barne) eta, hala badagokio, eraginak*
*117.014,64 €.*

*Ordainsariak BEZ barne* *9.361,18 €.*

*Inbertsioaren zenbateko osoa BEZ barne*
*126.375,82 €.*

*FINANTZABIDEA*

*TAPren ekarpena (ekarpenaren portzentajea x aurreikusitako zenbateko lagungarria BEZ kanpo)*
*78.332,12(75%)€*

*TAP Determinazio Libreko ekarpena 31. 812,00 €.*

*Kreditu operazioak epe luzera 46.520,12 €.*

*Finantzamendua, guztira:*
*126.375,82 €.*

*Toki Administrazioko eta Despopulazioko Zuzendaritza Nagusiko Toki Azpiegituren Zerbitzuak ezarritako diruz lagun daitekeen zenbatekoa tokiko erakundeak aurreikusitako zenbatekoa baino txikiagoa bada, eta, beraz, erakunde horrek finantzatu beharreko zenbatekoa handitzen bada, gastu horren finantzaketa honako hauen kargura egingo da:*

☒ *Kreditu operazioak epe luzera*

3.- Hartutako erabakia eta Tokiko Azpiegitura Plana arautzen duen martxoaren 22ko 8/2022 FORU LEGEAn eskatutako dokumentazioa Tokiko Administrazioaren Departamentuan aurkeztea.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez gero, bilkurari bukaera eman zaio egun bereko 17:00etan, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.